

GIL 30 San Tirso gaina



San Tirso gaineko klippearen bista, Kripanetik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 36' 43,55" N
Long.: 2° 32' 11,67" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 538.009,78 m
Y: 4.717.844,53 m



Nola iritsi

San Tirso basilizara heltzeko, Okongo Andra Mariaren santutegira iritsi behar da, Berne-
do herritik. Handik, aldapa gogor bat igo behar da San Tirso basilizaraino, 90 minutuz.



San Tirso basilizako erromeria. Monolitoaren kareharrien antolaera bertikala ikus daiteke, azpiko kareharri tupatsuenari kontrajarria.

GILaren deskribapen laburra

Toloñoko mendilerroko Goi Kretazeoko (Coniaciarra) kareharriek monolito nabarmen bat eratzen dute San Tirso basilizaren inguruan. Monolitoak 40 bat metroko altuera du, eta kareharri-tontorraren gainerakotik 100 metro ingurura dago.

Egiturari dagokionez, San Tirso monolitoa Toloñoko mendilerroko zamalkadura-sistemako klippe bat da. Kareharriak bertikalean daude, eta zamalkaduraren goiko blokeko arrapalaren zonako belaun-toles bat adierazten dute. Egituraren antolaera hori Toloñoko mendilerroko zenbait sektoretan errepikatzen da, eta agerian uzten du fronte horren zamalkadura-sistemaren konplexutasuna.

GILak, halaber, aukera bikaina ematen du Toloñoko mendilerroko kareharriak ikusteko. 60 metro inguruko lodiera dute, eta plataforma ireki batean metatu dira; kareharri harea-tsez, kareharri bioklastikoz, kalkarenitaz eta dolomiaz osatuta daude.

Behatzeko punturik onena

Toloñoko mendilerroko iparraldeko eta hegoaldeko isurialdetik ikus daiteke San Tirso gaina, baina egokiena bertan ikustea da.

LIGs relacionados

- **Geografikoki:** GIL 53, GIL 80, GIL 55, GIL 72.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 123.

Valoración del LIG

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa	●			
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Monolitoak alboko baselizatik hartu du izena, San Tirso. Gaztelaniaz "bonete" esaten zaio (bonete de San Tirso), apaizen bonetaren antza duela eta. Urtero, udaberrian, erromeria egiten da baselizan.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- MAGNA, 170. zk.
- EVE, 170-II zk.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M. (1993). "Corte balanceado de la Sierra Cantabria (Cabalgamiento de la Cuenca Vasco-Cantábrica sobre la Cuenca del Ebro)". *GEOGACETA*, 14, 113-115.
- Martínez-Torres, L. M. , Ramón-Lluch, R., eta Eguiluz, L. (1994). "Tectonic wedges: geometry and kinematic interpretation". *Journal of Structural Geology* 16, 10, 1491-1494. [http://dx.doi.org/10.1016/0191-8141\(94\)90011-6](http://dx.doi.org/10.1016/0191-8141(94)90011-6).